

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

## 2160

*EBAZPENA, 2024ko apirilaren 29koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearena, lehiakide bat Unibertsitateko Irakasle Titularra izendatzeko dena. Unibertsitateko irakasleen kidegoetako funtzionarioaren plaza hori betetzeko lehiaketarako deia 2023ko azaroaren 10eko Ebazpenaren bidez egin zen (2023-11-20ko BOE eta 2023-12-01eko EHAA).*

2023ko azaroaren 10eko Ebazpenaren bidez (2023-11-20ko BOE eta 2023-12-01eko EHAA) argitara emandako lehiaketa epaitu behar duen batzordearen proposamena ikusita, eta proposatutako lehiakideak deialdian aipatutako dokumentuak aurkeztu ondoren (deialdiko 9. oinarria), errektoreak ondoren zehazten den izendapena egitea ebatzi du, 2/2023 Lege Organikoko ahalmezez baliatuta (martxoaren 22ko Legea, Unibertsitate Sistemarena; martxoaren 23ko BOE), baita lege horrekin bat datozen xedapenek emandakoez ere:

Haritz Sardon Muguruza jauna (NAN: \*\*\*3997\*\*) Unibertsitateko irakasle titularrak. Jakintza arloa: «Kimika Fisikoa»; Kodea: TUC8/1 – D00340-15; Saila: Polimero eta Material Aurreratuak: Fisika, Kimika eta Teknologia; Ikastegia: Kimika Fakultatea; Hizkuntz eskakizuna: hirueleduna (eusk./ing./gazt.); Arduraldia: osoa; Egin beharreko irakaskuntza eta ikerkuntza lanak: «Kimika Makromolekularra».

Izendatutako lehiakideak 20 laneguneko epea izango du, ebazpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den bigarren egunetik hasita, plaza horren jabe egiteko.

Leioa, 2024ko apirilaren 29a.

Errektorea.

Eskumenak eskuordetuta (Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 28koa, errektorearena)

Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea,  
FEDERICO RECART BARAÑANO.